

NOLA SENTITZEN ZARA?

Testua eta irudiak: ANTHONY BROWNE

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27 cm. 32 or. 14 €.

Nola sentitzen zara? (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-716-2. Kalandraka-Pamiela.

¿Cómo te sientes? (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-08-9. Libros para Soñar.

Que tal estás? (galegoz)

ISBN 978-84-8464-723-2. Tras os montes.

Com estàs? (katalanez)

ISBN 978-84-15170-20-4. Kalandraka-Hipòtesi.

Como te sentes? (portugesez)

ISBN 978-989-8205-79-7. Livros para Sonhar.

Nola sentitzen zara?

Tira, batzuetan, aspertuta... eta beste batzuetan bakarrik.

Batzuetan oso zorionsu sentitzen naiz... eta beste batzuetan, berriz.

Liburu honi esker, txikienek nola sentitzen diren adierazten ikasiko dute, irudi eta hitz samurren bidez: aspertuta, pozik, triste...

Testua laburra da eta osagarri bikaina du ilustrazioetan: bertan ikus baitaitezke pertsonaiaren adierazpena eta jarrera, eguneroko elementuez lagundurik –jostailuak, margoak, liburuak...–, kontzeptu bakoitza bere ikus-deskribapenaren bidez finkatuz.

Anthony Browne-k haur-emozioen mundura garamatza, kolore, tamaina eta tipografiekin egiten du jolas: txikitzen edo handitzen diren figurak; uhindun marrak; hitz larriak, xeheak edo etzanak, bakoitzak daraman emozio-edukiaren arabera.

“Nola sentitzen zara?” oraindik irakurtzen ez dakitenentzat eta irakurtzen hasitakoentzako liburua da, norik bere burua ezagutzeko eta sozializatzeko lan bikaina.



■ **Gaiak:** sentipenak eta emozioak.

■ **Gomendatutako adina** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi aipagarriak:** giza itxurako animaliak; aldaten adierazpena; jolas kromatiko eta tipografikoak; irakurleekiko elkarreragina; “Kezkamuxelak” eta “Urdaburutarrak” albumen egile eta ilustratzaile berarena.

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoan espezializatu zen. Giza irudia irudikatzeke lehia perfektionista haren lehen lanetako eraginetik dator, Manchestereko erietxe bateko medikuntza gaietako marrazkigile aritu baitzen. Haurrentzako ilustrazioetarako joera geroagoko aldi batean sortu zitzaion, zorian txartelak diseinatzen zituenekoa. Browneren estiloan atzeman daiteke margolari surrealistikiko, eszena onirikoekiko eta elementu bitxiakiko interesa. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway Domina, Kurt Maschler Saria eta Children's Laureate 2009 Domina. Hala ere, guztien gainetik, Hans Christian Andersen Saria dago, bere obra osoagatik 2000. urtean eman baitzioten. 1956an ematen hasi zenetik, sari garrantzitsu hori jaso duen lehen britainiarra da. Itzal handieneko egile ingelesetarikoa bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoaia plastikoarekin erlazionatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Horren adibide bikainak dira “Urdaburutarrak” eta “Kezkamuxelak”, KALANDRAKAK argitaratuak. Adituen esanetan, Browneren lanak kultur eta arte-erreferentziez betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrasto eta giltzarri ugari azaltzen baititu.

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela .com
ctxca
soltxate@pamiela.com